



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2021IPLE0010

Eguna: 2021-10-26

Ordua: 19:00 – 19:35

Tokia: areto nagusian

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües..... Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV

Amatasun bajarengatik eskuordetutakoak:

- Esti Neira MartinezAstigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi MendiorotzAstigarragako EH Bildu
- Urkiri Salaberria Gracia.....Astigarragako EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Mikel Durán Gonzalo..... Udal-talde Sozialista

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk	ORDEN DEL DIA
2021eko irailaren 28ko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 28 de septiembre de 2021.
Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia	2	Modificación de créditos: transferencia de créditos
Kreditu aldaketa: kreditu gehigarria.	3	Modificación de créditos: crédito adicional.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Sagardoetxearen (sagardo museoaren) etorikitzunari buruzko herri-galdeketa deialdirako eta antolakuntzarako irizpideak onartzea.	4	Aprobar los criterios para la convocatoria y de organización de consulta popular sobre el futuro de la Sagardoetxea (museo de la sidra)
2022. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak.	5	Tarifas del servicio de autotaxi para el año 2022.
Lankidetzaren hitzarmen markoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Udalaren artekoa, Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko dena.	6	Convenio marco de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ayuntamiento para la cooperación de Ertzaintza y Policía Local.
MUGI ASTIGARRAGAK, Autobus zerbitzu publiko duinaren aldeko herri plataformak, aurkeztutako mozioa.	7	Moción presentada por MUGI ASTIGARRAGA, Plataforma ciudadana por un servicio de autobuses público digno.
Añarbeko Urak aurkeztutako mozioa, Añarbeko "Behoko Kanalaren Alternatibaren" obren egoerari buruzkoa.	8	Moción presentada por Añarbeko Urak, sobre la situación de las obras de la "Alternativa al Canal Bajo" de Añarbe.
Adierazpen instituzionala emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunaren ingurukoa.	9	Declaración institucional sobre el día internacional para la eliminación de la violencia machista contra las mujeres.
Mozioa, energia horniduraren prezioen gorakadaren aurrean hartzeko neurrien inguruan.	10	Moción sobre medidas a tomar ante el aumento de los precios del suministro energético.
Mozioa, migrazioarako euskal itun sozialaren ingurukoa.	11	Moción sobre el pacto social vasco para la migración.
Kreditu aldaketa: kreditu gaitzuntza.	12	Modificación de créditos: habilitación de crédito.
Informazio, galdera eta eskariak.	13	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

Bilerari hasiera eman aurretik, alkateak azaldu du Esti, Ione eta Urkiri zinegotziek, amatasun-bajan daudenez, beren botoa eskuordetu egin dutela, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 25.6 artikulua xedatutako irajarrak.

Antes de dar comienzo a la sesión, el alcalde explica que las concejalas Esti, Ione y Urkiri, al estar de baja maternal, han delegado su voto en virtud de lo dispuesto en el artículo 25.6 de la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi.

Bestalde, proposatu du gai zerrendaren ordena aldatzea, eta lehendabizi aztertzea 7. eta 12. gaiak. Bozkatzerak ekin zaio eta proposamena aho batez onartu da.

Por otra parte, propone modificar el orden del día, comenzando por los temas 7 y 12. Se somete a votación y se aprueba la propuesta por unanimidad.

7.- MUGI ASTIGARRAGAK, Autobus zerbitzu publiko duinaren aldeko herri plataformak, aurkeztutako mozioa.

7.- Moción presentada por MUGI ASTIGARRAGA, Plataforma ciudadana por un servicio de autobuses público digno.

Alkateak azaldu du iraileko osoko bilkurara MUGI

El alcalde explica que en el pleno de septiembre



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

ASTIGARRAGAKo, Autobus zerbitzu publiko duinaren aldeko herri plataformako kideak bertaratu zirela eta, batetik, sinadura bilketaren emaitzaren berri eman zutela eta, bestetik, adierazi hurrengo plenorako mozio bat aurkezteko asmoa zutela, udaltalde guztiek aho batez onartzeko helburuarekin.

Ondoren, plataformako kideei hitza eman die, eta haren ordezkariak mozio hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Mugi Astigarraga autobus zerbitzu publiko duinaren aldeko herri plataformak honakoa gogorarazi nahi dio Astigarragako Udalbatza osoari:

- *Astigarraga asko handitu dela eta oraindik ere handituz jarraituko duela.*
- *Astigarragak duen garraio bide publiko bakarra autobusa dela.*
- *Astigarragaren hazkundearen ondorioz azkeneko urteetan autobus zerbitzua oso kaskarra izan dela eta erabiltzaile asko gelditu izan garela maiz autobusera igo ezinik, leku faltagatik.*
- *Astigarraga Donostiarekin mugakide dela, eta zerbitzu ugaritarako ezinbestean jo behar dugula hiriburura, Hernani ez den beste edozein lekutara joateko tarteko geltoki gisa.*
- *Astigarraga dela ospitaleetarako zuzeneko linearik ez duen eskualdeko herri bakarra.*
- *Erakundeek nahiz herritarrok bat egiten dugula ingurumena eta zerbitzu publikoak babesteko nahiarekin.*

Hori kontuan izanik, ondorengo mozioarekin bat egiteko eskaera egiten diogu Astigarragako Udalbatzari:

1. *BU12 eta BU13 lineak bi zerbitzu desberdin dira, funtzio eta erabiltzaile desberdinak dituztenak.*
2. *Gipuzkoako Foru Aldundiak irailaren 13az geroztik ezarritako ordutegi eta maiztasunak ez dira*

asistieron a la misma miembros de MUGI ASTIGARRAGA, la plataforma ciudadana por un servicio público digno de autobús, que informaron del resultado de la recogida de firmas y comunicaron su intención de presentar una moción para el próximo pleno, con el objetivo de que fuera aprobada por unanimidad por todos los grupos municipales.

A continuación cede la palabra a la plataforma, cuyo representante presenta – para su aprobación – la siguiente moción:

Mugi Astigarraga, la plataforma ciudadana por un servicio de autobús público digno quiere recordar lo siguiente al Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga:

- *Que Astigarraga ha tenido un gran crecimiento y que todavía seguirá creciendo más.*
- *Que el único medio de transporte público del que dispone Astigarraga es el autobús.*
- *Que debido a ese gran crecimiento el servicio de los últimos años ha sido muy insuficiente y que las/los usuarias/os nos hemos quedado en numerosas ocasiones en la parada, por falta de sitio.*
- *Que Astigarraga linda con Donostia y nos vemos obligadas/os a acudir a la capital para numerosos servicios, para poder hacer transbordo allí para cualquier sitio que no sea Hernani.*
- *Que Astigarraga es el único municipio de la comarca que no tiene servicio directo a hospitales.*
- *Que tanto las instituciones como la ciudadanía nos sumamos al deseo de cuidar el medio ambiente y los servicios públicos.*

Teniendo en cuenta todo ello, pedimos al Pleno del Ayuntamiento de Astigarraga que se sume a la siguiente moción:

1. *Las líneas BU12 y BU13 son dos servicios diferentes, con funciones y usuarias/os diferentes.*
2. *Los horarios y frecuencias establecidos por la Diputación Foral de Gipuzkoa desde el 13 de septiembre no solo no son suficientes sobre el*



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

nahikoa paper gainean idatzita dauden moduan, eta gainera, ordutegi eta maiztasun horiek ez dira behar bezala betetzen ari.

3. *Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari bere eta plataformaren izenean aho batez eskatzea honakoak:*

4.

- *BU12 autobusaren ibilbidea (geltokiak) eta maiztasuna lehengoratzeko.*
- *BU13 linea 15 minutuko maiztasunera igarotzeko eta, bidaiari gehieneko orduetan, errefortzuak edo autobus bikoitzak bermatzeko.*

- *Astigarraga Buruntzaldearekin eta Donostiarekin (ospitaleak eta unibertsitatea) lotzeko beste linea aukera batzuk aztertzeko eta epe laburrera ezartzeko.*

5. *Zerbitzuetan izandako gorabeherak jaso eta egin beharreko moldaketa eta aldaketei berehalakoan erantzuteko.*

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du aurreko astean plataformako kideekin elkartu zela eta azaldu ziela gaiaren inguruan osoko bilkuran aztertutako beste mozioan abstenitu izanaren arrazoiak. Gaineratu du EAJ taldea beti egon dela garraio publikoaren alde eta horren alde batera lan egiteko prest daudela.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du EH Bilduko udal-taldeak eta udal-gobernuak plataformak aurkeztutako mozioaren alde bozkatu duela, guztiz bat datorrelako udalak orain arte egin dituen eskariekin (ekaineko mozioan, foru aldundiari bidalitako idatzietan edo Batzar Nagusietako joan den asteko agerraldian).

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozioa aho batez onartu da.

Bozketa egin ondoren, alkateak berriz hartu du hitza, eta adierazi du herritarrek, udalak eta alderdi politikoek bat eginda jarduteko unea dela, eta Astigarragako EH Bildu, EAJ/PNV eta PSE udal-taldeei eskatu die ahalegin osoa egin dezaten diputazioari eskatzeko autobus zerbitzu duin bat, herritarren beharrei erantzungo diona. Amaitzeko,

papel, sino que además dichos horarios y frecuencias no se cumplen como debieran.

3. *El Pleno del Ayuntamiento solicita en su propio nombre y en el de la plataforma lo siguiente a la Diputación Foral de Gipuzkoa:*

4,

- *Que la línea BU12 vuelva a su anterior frecuencia y recorrido (paradas).*
- *Que la línea BU13 pase a tener una frecuencia de 15 minutos y que en las horas de máxima afluencia se garanticen refuerzos o autobuses dobles.*

- *Que se estudien y se materialicen a corto plazo otras posibles líneas para unir Astigarraga con Buruntzaldea y Donostia (hospitales y universidades).*

5. *Que recopile las incidencias del servicio y lleve a cabo de inmediato las adaptaciones y modificaciones pertinentes.*

La Concejala Nerea toma la palabra para manifestar que la semana anterior se reunió con la plataforma y les explicó los motivos de su abstención en la otra moción que se trató en el pleno. Añade que su equipo está a favor del transporte público y que están dispuestos a trabajar en equipo.

Toma la palabra el alcalde y manifiesta que el grupo municipal de EH Bildu y el gobierno municipal vaa votar a favor de la moción presentada por la plataforma ya que es totalmente acorde con las peticiones que han realizado desde el ayuntamiento hasta el momento (tanto en la moción aprobada en junio como en los escritos remitidos a la diputación foral o en la comparecencia de la semana pasada en las Juntas Generales).

A continuación se procede a votar y se **aprueba** la moción por **unanimidad**.

Tras realizar la votación el alcalde toma nuevamente la palabra, y tras señalar que es momento de que la ciudadanía, el ayuntamiento y los partidos políticos actúen unidos, pide a los grupos municipales de EH Bildu, EAJ/PNV y PSE de Astigarraga que hagan todo el esfuerzo para exigir a la diputación un servicio de autobús digno que responda a las necesidades de la ciudadanía. Y



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

komentatu du datozen egunetan bidaliko dela mozioa Aldundira eta webgunean argitaratuko dela, eta eskerrak eman dizkie plataformako kideei autobus-zerbitzu duin baten alde egiten ari diren lanagatik.

termina su intervención, indicando que en los próximos días se remitirá la moción a Diputación y se publicará en la página web, y dando las gracias a la plataforma por el trabajo que están realizando a favor de un servicio de autobuses digno.

12.-Kreditu aldaketa: kreditu gaikuntza.

Alkatetzaren 900/2021 Dekretuaren berri eman da, kreditu gahikuntza modalitatean Udalaren 2021-KALD-000008 kreditu aldaketa onartzen duena.

12.-Modificación de créditos: habilitación de crédito.

Se da cuenta del Decreto de alcaldía 900/2021 por el que se aprueba la modificación de créditos 2021-KALD-000008 en la modalidad de habilitación de crédito.

1.- 2021eko irailaren 28ko akta onartzea.

Antton zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

1.- Aprobación del acta de 28 de septiembre de 2021.

El concejal Antton se ha abstenido al no haber estado en la sesión anterior, el resto vota a favor. Por lo tanto, se aprueba el acta.

2.- Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia

Alkateak kreditu aldaketa egin beharraren arrazoiak azaldu ondoren, ogasun eta Ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

2.- Modificación de créditos: transferencia de créditos

El alcalde, tras dar las razones para realizar la modificación, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos de la modalidad de transferencias de crédito del Presupuesto de este Ayuntamiento, con el detalle por partidas que figura en la propuesta, de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)/Gastos que van a transferir el crédito (bajas)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	1.036.751,11	176.600,00	860.151,11
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	91.583,00	31.900,00	59.683,00
	GUZTIRA	1.128.334,11	208.500,00	919.834,11



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)/Gastos objeto de crédito (altas)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	1.022.377,62	115.800,00	1.138.177,62
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	69.000,00	2.200,00	71.200,00
6	INBERTSIO ERREALAK	234.000,00	90.500,00	324.500,00
GUZTIRA		1.325.377,62	208.500,00	1.533.877,62

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa”

Segundo.- Dado que este acto es firme y ejecutivo sin más trámite, procede que el Servicio de Intervención contabilice inmediatamente la modificación de crédito aprobada..

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

3.- Kreditu aldaketa: kreditu gehigarria.

Alkateak kreditu aldaketa izapidetu beharraren arrazoiak azaldu ondoren, Ogasun eta Ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

3.-Modificación de créditos: crédito adicional.

El alcalde, tras exponer los motivos que justifican la tramitación de la modificación de créditos, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

Primero. Aprobar el expediente de modificación de créditos de la modalidad de créditos adicionales del Presupuesto de este Ayuntamiento, con el detalle por partidas que figura en la propuesta, de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos: -

KREDITU GEHIGARRIAK/CRÉDITOS ADICIONALES

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	50.000,00
6	INBERTSIOAK	19.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		69.000,00

FINANTZAKETA/FINANCIACIÓN

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	69.000,00
GUZTIRA		69.000,00



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

Segundo.- Exponer al público durante quince días a efectos de reclamaciones. Si no se presentaran reclamaciones, se entenderá que el presente acuerdo es definitivo. Este expediente deberá seguir el resto de trámites establecidos para la aprobación del presupuesto.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

4.- Sagardoetxearen (sagardo museoaren) etorikitzunari buruzko herri-galdeketa deialdirako eta antolakuntzarako irizpideak onartzea.

Alkateak azaldu du estatuko gobernuak kontsulta egiteko baimena eman duela, eta hurrengo urratsa dela kudeaketa eta antolaketa irizpideak onartzea; eta horretarako 2016ko herri-galdeketa erabilitako irizpideak hartu dira abiapuntutzat.

Jarraian, Berdintasunerako eta Partaidetzarako Informazio Batzordearen irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- Galdeketa Erribera kulturgunean egitea, botoa emateko 5 sekzio eratzea eta mahaien banaketa abizenen arabera egitea

Bigarrena.- Ordezko udal idazkariaren 2016ko otsailaren 1eko txosten juridikoan jasotako proposamen hauek onartzea:

a.- Parte-hartzaile eta galdeketa-eroldaren osaketa.

b.- Botoa aurrez emateko aukera idazkaritzatik bideratzea, proposatutako prozedura jarraituz; eta horretarako galdeketa aurreko bi asteak ezartzea

c.- Artekari eta ahaldunen izendapena.

Hirugarrena.- Mahaikideak eta horien aukeraketari dagokionez, erabaki hauek hartzea:

a.- Mahaikideak udal zinegotziak eta boluntarioak (bai langileak bai herritarrak) izatea.

b.- Herritarrei mahaikide izateko baldintza hauek eskatzea: Astigarragan erroldatua egotea, 16 eta 65

4.-Aprobar los criterios para la convocatoria y de organización de consulta popular sobre el futuro de la Sagardoetxea (museo de la sidra)

El alcalde explica que se ha obtenido la autorización del gobierno estatal para llevar a cabo la consulta, y que el siguiente paso es aprobar los criterios para su gestión y organización, y que para ello se ha partido de los utilizados en la consulta del 2016.

Acto seguido, presenta - para su aprobación - el siguiente dictamen de la comisión informativa de Igualdad y Participación

Primero.- Realizar la consulta en Erribera kulturgunea, organizar 5 secciones para votar y repartir las mesas por apellidos.

Segundo.- Aprobar las siguientes propuestas contenidas en el informe jurídico de la secretaria accidental de 1 de febrero de 2016:

a.- Composición del censo de participantes y de la consulta.

b.- Tramitar desde secretaria el voto anticipado, siguiendo el procedimiento propuesto; Estableciendo de plazo para ello, las dos semanas previas a la consulta.

c.- Nombramiento de interventores y apoderados.

Tercero.- En lo referente a los miembros de mesa y a su elección, adoptar los siguientes acuerdos:

a.- La mesa estará integrada por concejales y voluntarios (trabajadores-as del Ayuntamiento y vecinos-as).

b.- Solicitar los siguientes requisitos para los/las voluntarios/as: estar empadronado en Astigarraga,



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

urte bitarte edukitzea eta gutxienez eskola graduatua edo baliokidea gaindituta edukitzea.

tener entre 16 y 65 años y estar en posesión, por lo menos, del graduado escolar o título equivalente.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu Batzordearen esku erabaki hauek uztea:

Cuarto.- Delegar a la Comisión de Gobierno Local la aprobación de los siguientes acuerdos:

a.- Herri-galdeketa boto-papera eta gutunazalak onartzea.

a.- Aprobar la papeleta y los sobres de la consulta popular.

b.- Botoa aurrez emateko ordutegia zehaztea.

b.- Fijar el horario para el voto anticipado.

c.- Mahaikideen eta ordezkoen izendapena egitea, eta horien aukeraketaren inguruko erabakiak hartzea (izenemate orria onartzea, eskabideak aurkezteko epea ezartzea...), bai eta horien antolaketari eta formazioari buruzkoak ere.

c.- Nombramiento de vocales y suplentes y adopción de acuerdos sobre su elección (aprobación de la hoja de inscripción, establecimiento del plazo de presentación de solicitudes ...), organización y formación.

d.- Galdeketa-kanpainarako (udalak antolatutako bilerak, hitzaldiak...) eta kartelak jartzeko lekuak zehaztea; eta kanpaina instituzional bera ere zehaztea.

d.- Determinar los lugares para realizar la campaña (reuniones organizadas por el Ayuntamiento, charlas ...) y para la colocación de carteles, así como, la propia campaña institucional.

e.- Galdeketa-eguneko antolaketa zehaztea: Mahaian osaketa, mahaikideen egin beharrak, botoa ematea, boto kontaketa...

e.- Aprobar la organización del día de la consulta: composición de las mesas, obligaciones de las personas integrantes de las mesas, votación, recuento de votos...

f.- Galdeketa egunean erabiliko diren agiriak onartzea: eraketa-akta, galdeketa-eroldako zerrendak, boto emaileen zerrenda-zenbakiduna, boto-kontakteta eta bilkura-akta, artekariaren izendapen eskaera, ahaldunen izendapen eskaera eta bozkatu izanaren edo utzi ez izanaren ziurtagiria.

f.- Aprobar los documentos que se utilizarán el día de la consulta: acta de constitución, listas de censo, relación numerada de votantes, recuento de votos y acta de la sesión, solicitud de nombramiento de interventores y apoderado, y certificado de haber ejercido el derecho a voto o de denegación de voto.

g.- Herri-galdeketa burutzeko udal osoko bilkurak hartu gabeko gainerako erabaki guztiak, baldin eta horiek hartutako erabakiekin kontra-esanean ez badaude.

g.- Adopción del resto de acuerdos no adoptados por el pleno municipal para llevar a cabo la consulta popular, siempre y cuando no contradigan las decisiones adoptadas por dicho pleno.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanidad**.

5.- 2022. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak.

5 Tarifas del servicio de autotaxi para el año 2022.

Alkateak azaldu du deialdian adierazi arren 2021 tarifak aurkeztuko direla, onartu beharrekoak 2022. urtekoak direla. Jarraian, obra eta Zerbitzuak Batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde explica que en la convocatoria se indica que se presentan las tarifas del 2021, pero que las que hay que aprobar son las del 2022. A continuación, presenta para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión de Obras y Servicios



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bakarra.-Taxi zerbitzuko hiri-tarifak %2,9a igotzea, eta ondorioz, 2022an tarifa hauek aplikatzea:

Única.-Incrementar las tarifas urbanas del servicio de taxi en un 2,9% y, en consecuencia, aplicar en 2022 las siguientes tarifas:

BURUNTZALDEA					
2022. URTERAKO HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA PROPUESTA TARIFA URBANA AÑO 2022					
TARIFA 1*			TARIFA 2 **		
Gutxienekoa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua	Gutxienekoa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua
Tarifa Mínima	Kilómetro recorrido	Hora de espera	Tarifa Mínima (3)	Kilómetro recorrido	Hora de espera
5,5197	1,1735	22,5187	6,5792	1,8797	35,3901

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du

La Tarifa Mínima incluye 1,5 km de recorrido o cinco minutos de espera.

* Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables desde las 07:00 horas a las 22:00 horas.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan

(**) Esta tarifa será aplicable todos los días desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente esta tarifa desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 y 31 de diciembre.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

6.- Lankidetzaren hitzarmen markoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Udalaren artekoa, Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko dena.

6.- Convenio marco de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ayuntamiento para la cooperación de Ertzaintza y Policía Local.

Alkateak, hitzarmen markoa sinatzeko beharrezko arrazoiak azaldu ondoren, bozeramaileen batzordearen irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

El alcalde, tras exponer las razones de la necesidad de firmar el Convenio Marco, presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Junta de portavoces

Lehen.- Onartzea Lankidetzaren hitzarmen markoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eta Udalaren artekoa, Ertzaintza eta Udaltzaingoa elkarlanean aritzeko dena.

Primero.- Aprobar el convenio marco de Colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ayuntamiento, para la cooperación de Ertzaintza y Policía Local.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena:-Alkateari ahalmena ematea hitzarmen markoa sinatzeko, eta baita hori garatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ere.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da

Segundo:- Autorizar al alcalde a la firma del convenio marco y de cuantos documentos sean necesarios para materializar el mismo.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

8.-Añarbeko Urak aurkeztutako mozioa, Añarbeko "Beheko Kanalaren Alternatibaren" obren egoerari buruzkoa.

Alkateak azaldu du gaia bozeramaile batzordean aztertu dela adierazi ondoren, testu hau aukeztea onartua izan dadin:

"Beheko Kanalaren Alternatiba" izeneko azpiegitura ezinbestekoa da Mankomunitateko hamar udalerrietako 300.000 biztanleri baino gehiagori hornidura ziurtatzeko, Astigarragako udalerrikoak barne.

24 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa da, eta 2010ean "Estatuaren Interes Orokor" izendatu zuten. Ondorioz, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak finantzatu eta gauzatu behar du, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren bidez.

Azken urteotan obrak hasi ahal izateko erakunde ezberdinek hainbat gestio egin dituzten arren, lanak oraindik lizitatu gabe daude, eta, ondorioz, egungo Behe Kanalak -Añarbeko urtegitik Petritegiko edateko uren tratamendu estaziora ura etengabe garraiatzen duenak- ondorio larriren bat izateko arriskua du.

Gaur egungo hodiaren antzintasunak -Beheko Kanala 1960an eraiki zen- eta ura garraiatzeko bigarren kanalik ez dagoen bitartean hura konpontzeko ezintasunak are premiazkoagoa egiten dute azpiegitura alternatibo hori eraikitzea.

300.000 gipuzkoar baino gehiagorentzako ur-hornidura arriskuan egongo litzateke egungo Beheko Kanalak ezbeharren bat izango balu 11,9 kilometro luzeko punturen batean.

8.- Moción presentada por Añarbeko Urak, sobre la situación de las obras de la "Alternativa al Canal Bajo" de Añarbe.

